

# HAURREN ESKUBIDEAK

Umeen Eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989



# HAURREN ESKUBIDEAK

## Umeen Eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989

---

### EDUCO

Garapenerako lankidetzako nazioarteko GKE bat gara, eta haurren alde eta haurren eskubideak defendatzeko egiten dugu lan, bereziki kalitatezko hezkuntza izateko eskubidearen alde. Neska-mutilekin eta haien inguruarekin egiten dugu lan, haien eskubideak eta ongizatea bermatzen dituzten gizarte zuzen eta bidezkoagoak sustatzeko. Pertsona guztiei bizitza duin batez osoki gozatzeko aukera ematen dien mundu bat eraiki nahi dugu.

Gure lehentasuna umeak eta nerabeak dira, zehazki, egoerarik zaugarri eta baztertuenean daudenak, eta arreta berezia eskaintzen diegu neskei.

Gure lana **haurren eskubideak** bete daitezela bultzatzera bideratuta dago, beti ere eskubideak arautzen dituen nazioarteko hitzarmenaren esparruan (Umeen Eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989), baita haurren ahal besteko ongizatea bilatzera ere, ezin hobea baita gizarte bidezkoagoak lortzeko eman diren aurrerapausoak ebaluatzeko.

**Eskubideen ikuspegi** honek gure ekintza guztietan hitzarmenaren oinarritzko printzipioak aplikatu behar direla esan nahi du, hau da: diskriminaziorik eza, haurren interesaren lehentasuna, bizirauteko eta garapenerako eskubidea eta umeek eta nerabeek beren iritzia adierazteko eta berekin lotutako gai guztietan kontuan hartuak izateko duten eskubidea.

**Hezkuntza**, berez eskubide bat izateaz gain, gainerako eskubideak eta askatasunak lortzeko nahitaezko tresna da. Horregatik ziur gaude eztabaidaezina, eskuragarria, irisgarria, onargarria eta moldagarria izan behar duela. Gure ustez horrela bakarrik delako pertsonen eta haien komunitateen bizitza aldatzeko gai, bidezkoagoak eta berdintasunezkoagoak diren gizarteak erakitzen lagunduz, alegia.

**Gure erakusketek** munduko arazoak ezagutzera ematen laguntzen dute, gure inguruan kontzientzia kritikoak esnaraziz. Horregatik, errespetuan eta giza duintasunaren sustapenean eta gizarte-kontzientzia kritikoan oinarrituta dagoen eta gizartearen bidegabekeriak aldatzeko dinamikak sortzeko gaitasuna duen **biztanleria global aktiboaren** kontzeptua bultzatu eta indartzeko egiten dugu lan. Horrek **kontzientzia eta jarrera kritikoak, tolerantia eta solidarioak garatzen laguntzea** esan nahi du, pertsonen eta gizartearen arteko lankidetzak sustatzeko, justizia soziala bultzatzera bideratuta. Helburu horrekin, sensibilizazio-ekintzak gauzatzen ditugu udaletan, liburutegietan, kultur etxeetan, unibertsitateetan, etab.



# HAURREN ESKUBIDEAK

## Umeen Eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989

---

### EDUCO 2015 ERAKUSKETAK

Educoren erakusketa honen helburua da Umeen Eskubideei buruzko Konbentzioa jendeari helaraztea, oro har, eta bereziki umeei eta nerabeei. Haurtzarora gizaki bat jaiotzen denetik 18 urte betetzen dituen arteko epea dela ulertzen da.

Munduko ume guzti-guztiak, bereizketarik gabe, jaiotzen dira eta eskubide berak dituzte. Umeen Eskubideei buruzko Konbentzioa Nazio Batuek 1989ko azaroaren 20an onartu zuten, eta 54 artikulutan oinarritzko lau printzipio jasotzen ditu:

- Diskriminaziorik eza
- Umearen interesaren lehentasuna
- Bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea
- Berekin erlazionatuta dauden gauza guztietan parte hartzea

Eskubideak derrigorrez bete behar dira berretsi dituzten herrialde guztietan. Gainera, haurra babesaren xede gisa beharrean eskubidedun izaki aktibo gisa ikusten duen lehenengo tresna da.

**Diskriminaziorik eza:** berdintasunerako eskubidea, erlijioaren, menpekotasunaren, generoaren edo nazionalitatearen ondoriozko bereizketarik gabe.

Umeen eskubide guztiak jaso dira Konbentzioan, beren jatorria, sexua, ezintasun fisiko eta mentalak, azal-kolorea eta sinesmenak zeinahi izanda ere. Gobernuaren betebeharra da umeak orotariko diskriminaziotatik babestea.

**Izena eta nazionalitatea:** eskubide eta askatasun zibilak

Umeek jaiotzeko, izen bat eta nazionalitate bat izateko, beren gurasoak ezagutzeko eta haien zaintza jasotzeko eskubidea dute. Herrialde askotan, hainbat arrazoiren ondorioz umeak ez dituzte erregistratzen eta, ondorioz, existituko ez balira bezala da. Jaiotzean, haurrak erregistro zibilean inskribatu behar dira.

**Familia:** beren familiarekin bizitzeko eskubidea

Umeen eskubide bat da, banantzea nahitaezkoa bada izan ezik, beren familiarekin bizitzea eta harremana mantentzea. Umearen gurasoak edo legez izendatutako senideak dira umea haztearen arduradunak. Gobernuaren betebeharra da eskubide hau betetzeko neurri egokiak ezartzea.

**Oinarritzko osasuna eta ongizatea:** bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea

Gobernuek ume guztien biziraupena eta garapena bermatu behar dituzte. Besteak beste, osasun maila posible onena izateko eskubidea bermatu behar diete, mediku eta errehabilitazio zerbitzurik onenak jasotzeko aukera ere eskainiz.

**Hezkuntza:** hezkuntzarako, aisialdirako eta kultura-jardueretan aritzeko eskubidea

Umeek beren izaera eta gaitasunak garatzera bideratutako hezkuntza jasotzeko eskubidea dute, beren helduarorako prestatzeko. Gobernuak gutxienez derrigorrezko eta kalitatezko lehen hezkuntza dohainik ziurtatzeko betebeharra du.

**Babesa:** ume eta nerabe guztiak dute edozer indarkeriatatik babestua izateko eskubidea

Agintaritzek umeak edozein motatako indarkeriatatik, tratu txarretatik eta gehiegikeriatatik babestu behar dituzte, baita beren ongizaterako kaltegarria den edozein ustiapenetatik ere, eta babes berezia ezarri behar dute gatazka armatuen kasuan.

**Adingabeen interesaren lehentasuna:** entzunak izateko eskubidea

Umeek beren iritzia adierazteko eta iritzi hori berekin erlazionatutako gai guztietan kontuan hartuak izateko eskubidea dute, eta helburu nagusia beren ongizatea da. Umeen interesak lehentasuna du helduenaren gainetik.

**Parte hartzea:** berekin erlazionatuta dauden erabakietan parte hartzeko eskubidea

Konbentzioan, era berean, umeek elkartzeko, adierazteko eta informazio egokia jaso, zabaldu eta eskuratzeko eskubidea dutela adierazten da.

# HAURREN ESKUBIDEAK

## Umeen Eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989

---

### EDUCO ETA UMEEN ESKUBIDEAK:

Gure 2015-2018 Plan Estrategikoak adierazten duen bezala, Educoren lanaren helburua da Umeen Eskubideak bete daitezela, eskubide horiek arautzen dituen Konbentzioaren esparruan (*Umeen Eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989*), eta haurren ahal besteko ongizatea bilatzea.

Neska-mutilekin eta haien inguruarekin egiten dugu lan, haien eskubideak eta ongizatea bermatzen dituzten gizarte zuzen eta bidezkoak sustatzeko.

Neska eta mutil guztiei beren eskubideez eta bizitza duin batez osoki gozatzeko aukera ematen dien mundu bat nahi dugulako.

### FITXA TEKNIKOA

- Erakusketa arina eta muntatzeko erraza da.
- Foamezko 150 x 90 cm-ko 10 panelek osatzen dute.
- Panelak zutik mantentzen dira, lurrean bermatuta; panel bakoitzak oinarrian triangelu formako euskarri bat baitu.
- Educok bere materialak beti eskaintzen ditu dohainik, eta erakunde hartzaileei eskatzen die ahal dela erakusketaren garraioaren edo bidalketaren gastuak beren gain hartzeko.

### Jarduera osagarriak:

#### **Hitzaldia**

Umeen eskubideei buruzko erakusketaren testuinguruan, ume eta nerabeei nahiz helduei zuzendutako hitzaldiak eta tailerrak antolatzeko aukera eskaintzen dugu. Jarduera honek, era berean, irakasle eta hezitzaileentzat umeen eskubideen inguruko hezkuntzari buruzko tailerrak antolatzeko aukera ematen du.

